

Ari gara

Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialeko Bigarren maila

Pello Mateos Yeste, Garbiñe Urreizti Lezertua

Argitalpena: Nafarroako Gobernua
Hezkuntza eta Kultura Departamentua
Euskara Zerbitzua

Egileak: Pello Mateos Yeste eta
Garbiñe Urreizti Lezertua

Marrazkiak: Regina Salcedo Irurzun

Diseinua: RBK, Diseinu eta Komunikazioa

Imprimaketa: Copyprint

Ari gara

EOIDNA-ko Euskara Departamentua abian jarri zenean, gure ikastetxe kolaboratzaileei ohikoa (maila bakoitzaren kurrikulua, ebaluazio irizpideak eta azterketak) eskaintzeaz gainera argi ikusi genuen Bigarren Hezkuntzako irakasleei zertxobait gehiago eskaini behar zitzaizela: guk proposatutako kurrikulua ikasgeletan aurrera eramaten lagunduko zion ikasmaterial xorta xume bat, alegia.

Ikasmaterial hau sortzera bultzatu gintuen arrazoia kurrikuluaren beraren izaeran aurkitu behar dugu. Izan ere, EOIDNA-ko A ereduko 1.mailari zegokion kurrikulua prestatzerako orduan, HABE-k plazaratu zuena hartu genuen oinarritzat. HABE-ko kurrikuluak zerbait ona badu, eta alderdi on asko ditu, ikaslea komunikazio eraginkor eta praktikora bultzatzeko asmoa da. Horixe nahi genuen, ohiko irakasbide memoristiko eta gramatikal horretatik aldentuta, Bigarren Hezkuntzako A eredu-ko gure ikasleei komunikaziorako bide ematea.

Ari gara materialaren helburua ikasgelan lau trebetasunak lantzea da. Lau trebetasunetatik mintzamina izan da orain arte gelan lantzeko aukerarik izan ez duena, ohitura falta batetik, eta gelako ikasle kopurua bestetik, izan dira gure ustez trebetasun hau ez lantzearen arrazoi nagusiak. Guk eskaini dizuegun materialean, beraz, beste trebetasunen artean mintzamenari ere lekutxo bat egi-tea proposatu dizuegu.

Nozio komunikatiboa oinarri delarik, esaldiak egituratu ahal izateko errekurtsu gramatikalak gelako irakasleak zabaldu beharko ditu, betiere material osagarria baita guk sortu duguna. Gure liburu honetan ez dira betiko eta beharrezkoak diren azalpen gramatikalak aurkituko, gure programazioan mailaka definituak agertzen direnak, hauek gelako irakasleak inork baino hobeto azalduko dituela uste dugu.

Ari gara ikasmateriala bi zatitan aurkeztu nahi izan dugu: irakaslearen liburua eta ikasleena. Lehenengoan irakasleek baliagarriak izan dakizkiekeen informazioak aurkituko dituzte, hala nola jarduera bakoitzaren euskarriak (testu-mota, kontestuko ezaugarriak, adierazpide linguistikoak...), prozedura, soluzioak... Bigarrenean ikasleek egin beharko dituzten zeregin guztiak, modu erakar-garrian aurkeztuak, biltzen dira.


Bukatzeko, eskerrak eman nahi genizkieke Nafarroako Gobernuko Araubide Bereziko Irakaskuntzaren eta Teknologia Berrien Zerbitzuari eta bereziki Euskara Zerbitzuari, hauen laguntzarik gabe lantxo honek ez baitzuen argia ikusi izango. Era berean, gure eskerrik beroena Nafarroako Gobernuko Ikasliburu eta Materialen Unitate Teknikoari argitalpen prozesu tekniko guz-tia bere gain hartu duelako. Azkenik ez genituzke aipatu gabe utzi nahi izango iaz EOIDNA-ren proiektuan A ereduan aritu, ari eta arituko diren irakasle guztiak, haien ekarpena balio handikoa izan baita. Horiei ere eskerrak.

Aurkibidea

- 4. Hezkuntza eta hizkuntza 7**
- 5. Pertsona: arropa eta oinetakoak 23**

Arbasoengandik jasotako hizkuntzak
beste ezerk baino askoz ere denbo-
ra luzeago irauten digu bihotzean.
Pentsamenduak askatu, burua ireki
eta bititza gozatu egiten digu.

Sami hizkuntzan idatzitako poema (Suedia)



**Ikasiz ikasten
eta
mintzatzen**

4

**Hezkuntza eta
hizkuntzak**

1.

Jarduera

Oraingoan neu notak jartzen



Mintzamena

Edukiak:

- **Hizkuntz trebetasuna:** Mintzamena.
- **Testua:** Lagunarteko solasa.
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: Jarritako notaren zergatia kontatzea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: Berdinen artekoa.
 - Komunikazio-kanala: Aurrez aurre (talde txikiaren aurrean).
 - Komunikazio-egoera: Gai bati buruz iritzia ematea.
 - Gaia: Ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: Doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistikoak:**
 - Alderdi fonologikoa:
 - /Z/ /S/ /X/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
 - il>[ll]
 - in>[ñ]
 - Asimilazioak: ez naiz >[enaiz]
ez dira >[eztira]
 - Alderdi morfosintaktikoa:
 - Izenordainak: ni, zu, gu, zuek (nik, zuk...)
 - Galdetzaileak: nor, zer, non, noiz, zein, zenbat... (deklinatuz)
 - Adberbioak:
 - Modu-adberbioak: gaizki, ondo, itxuraz, poliki, txarto...
 - Iritzi-adberbioak: agian, beharbada, dudarik gabe...
 - Aditza: Indikatibo oraina
 - Nor
 - Nor-nork (nor 3.)
 - Nor-nori (nor 3.)
 - Aspektua: ez-burutu puntukaria, ez-burutua, burutua
 - Baiezko, ezezko eta galderazko perpausak
 - Perpaus elkartua:
 - Juntadura:
 - Emendiozkoa: eta
 - Hautakaria: edo
 - Aurkaritzakoa: baina
 - Menpekoa:
 - Konpletiboa: -(e)la
 - Xedezkoa: -(e)lako

– Elementu diskurtsiboak:

• Erantzun laburrak:

- Zalantza adierazteko zerbaiti buruz: “Ez dakit ba”, “Baliteke”, “Ez nago seguru”...
- Iritzia azaltzeko: “Oso ona/ondo”, “Benetan ederra”, “Ez hain ona”...
- Betelana egiteko formulak: “Bueno”, “Ah”, “Zera”, “Nola esan?”, “Ba...”, “Zera... ba”...

Prozedura

Ikasleak, bakarka, bere ikasgaiei nota jarriko die (1etik 10era). Notak jarri eta gero, hiru-naka, puntuazioa jartzearen zergatia elkarri kontatuko diote: ikasgai hori erraza edo zaila egiten zaiolako, ordu horretan eroso sentitzen delako, betidanik gustatu zaiolako...

N.

Hau da hau!

NOZIOAK

Helburua

Harridurazko esaldiak nola eratzen diren ezagutzea.

Prozedura

Ikasleek beren fitxan agertzen diren harridurazko esaldiak eta esaldi horiei dagozkien irudiak parekatu beharko dituzte.

2.

Jarduera



Irakurmena



Mintzamina

“Esaera zaharrak”

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** Irakurmena.
- **Testua:** Kontaketa.
- **Kontestua:**
 - Irakurketaren xedea: Informazioa jasotzea.
 - Komunikazio-kanala: Liburua.
 - Komunikazio-era: Irakurgai erreala.
 - Gaia: Esaerak ulertzeko modukoa.
 - Eginkizunak: Dagozkion esaera zaharrak ulertaraztea.
- **Adierazpide linguistikoa: NARRAZIOA:**
 - Gertaeren egilea (NORK/NOR)
 - NORI zuzendua
 - NON, NOIZ gertatua
 - NOLA gertatua.
 - Orain eta lehenaldiko gertaerak: burutuak, ez-burutuak eta ez-burutu puntukariak.
 - Narrazioaren adierazleak:
 - Sarrera: behin, behin batean, egun batean...
 - Erritmo-aldatzaileak: halako batean, orduan...
 - Aldi-antolatzaileak: hurrengo batean...
 - Norbaiten esanak, usteak adierazteko zeharbidea: -(e)la
 - Denborazkoak: -(e)nean, eta gero, ondoren, aurretik...

Prozedura

Ikasleak bere fitxako esaera zaharrak eta hauen azalpenak irakurri eta ulertuko ditu. Gero, txandaka, bakoitzak bereak beste biei azalduko dizkie.

Hasteko, A-k bere lehenengo esaera azalduko du, gero B-k eta lehenengo buelta bukatze-ko C-k. Bigarren esaera azaltzearekin segituko dute eta hirugarrenarekin bukatuko dute.

3.

Jarduera



Irakurmena



Mintzamina



Idazmena

“Txiste berriak”

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** Irakurmena.
- **Testua:** Kontaketa.
- **Kontestua:**
 - Irakurketaren xedea: Informazioa jasotzea.
 - Komunikazio-kanala: Liburua.
 - Komunikazio-era: Irakurgai errealia.
 - Gaia: Txisteak ulertzeko modukoa.
 - Eginkizunak: Dagozkion txisteak ulertaraztea.
- **Adierazpide linguistikoa:** Ikus 2. jarduera

Prozedura

- A) Ikasleak tokatu zaizkion txisteak irakurri, ulertu eta besteei kontatuko dizkie. Txandaka kontatuko dituzte, hasteko A-k, B-k eta C-k lehenengo txistea kontatuko diote elkarri eta gero, bigarren txistearekin bigarren buelta egiten hasiko dira.
- B) Bakoitzak ezaguna duen txiste bat idatzi eta elkarri pasatuko diote. Bestearen txistea irakurri, ulertu eta talde txikiari kontatu beharko diote.

4.

Jarduera

“Ikasketa bidaiak”



Irakurmena



Mintzamena

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** Mintzamena.
- **Testua:** Deskribapena.
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: Irakurritakoa labur-labur kontatzea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: Berdinen artekoa
 - Komunikazio-kanala: Aurrez aurre (talde txikiaren aurrean).
 - Komunikazio-egoera: Gai bati buruz informazioa ematea.
 - Gaia: Ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: Doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistikoak:** (Ikus I. JARDUERA)
 - Elementu diskurtsiboak:
 - Erantzun laburrak:
 - Adostasuna/desadostasuna adierazteko: “Ados nago”, “Ez nago ados”
 - Iritzia azaltzeko: “Uste dut”, “Nire ustez”
 - Betelana egiteko formulak: “Bueno”, “Ah”, “Zera”, “Nola esan?”, “Ba...”, “Zera... ba”...

Prozedura

Ikasleek “Ikasketa bidaiak” testua irakurri, ulertu eta talde txikian, ahoz, fitxan agertzen diren galderei erantzungo diete elkarren iritzia entzun eta ulertu beharko dituzte.

N.

Nori idatziko diot?

NOZIOAK

Helburua

Ikasleak, gutunak idazteko erabiltzen diren formula eta konbentzioak ezagutu eta ikasiko ditu.

Prozedura

Bakarka, fitxa irakurri egin beharko dute.

5.

Jarduera



Idazmena

“Zuzendariari idazten”

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** Idazmena.
- **Testua:** Eskutitz formala.
- **Kontestua:**
 - Idazketaren xedea: Proposamena egitea.
 - Igorle-hartzaile harremana: Ikasle-ipuineko pertsonaia.
 - Komunikazio-kanala: Eskutitza.
 - Erabilera-esparrua: Akademikoa.
 - Gaia: Ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
- **Adierazpide linguistikoa: DESKRIBAPENA:**
 - Adjetiboak: kualifikatiboak
Atzizki adjetibatzaileak: -garri, -tar, -dun, -ti, -tsu
 - Konparaketa: graduazioa
 - Aditza: Denbora: orain eta lehenaldia
Aspektua: ez-burutu puntukaria, ez-burutua, burutua. Etorkizuna.
 - Dimentsio-adierazleak: aurre, atze, azpi, gain, barru, ondoan, goian, behean, ezkerrean, eskuinean...
 - Objektuen xedea eta izaria adierazteko: Xedea: -t(z)eko
Erlatiboa: -e(n)
 - Denborazkoak: -(e)nean, eta gero, ondoren, aurretik...

Prozedura

Ikasleak, bakarka, bere ikastetxeko zuzendariari eskutitza idatziko dio, ikasketa bidaia ez egitearekin ados ez dagoela esanez. Bukatutakoan, hirunaka jarrita, idatzitakoa elkarri pasatuko diote. Besteek idatzi dutena ulertu eta erabilitako argudioak konparatuko dituzte.

6.

Jarduera

Hizkuntzen urte europarra



Irakurmena



Mintzamina

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** Mintzamina.
- Testua: **Deskribapena.**
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: Irakurritakoa labur-labur kontatzea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: Berdinen artekoa.
 - Komunikazio-kanala: Aurrez aurre (talde txikiaren aurrean).
 - Komunikazio-egoera: Gai bati buruz informazioa ematea.
 - Gaia: Ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: Doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistikoak:**
 - Alderdi fonologikoa:
 - /Z/ /S/ /X/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
 - il>[ll]
 - in>[ñ]
 - Asimilazioak: ez naiz >[enaiz]
ez dira >[eztira]
 - Alderdi morfosintaktikoa:
 - Izenordainak: ni, zu, gu, zuek (nik, zuk...)
 - Galdetzaileak: nor, zer, non, noiz, zein, zenbat... (deklinatuz)
 - Adberbioak:
 - Modu-adberbioak: gaizki, ondo, itxuraz, poliki, txarto...
 - Iritzi-adberbioak: agian, beharbada, dudarik gabe...
 - Aditza: Indikatibo oraina
Nor
Nor-nork (nor 3.)
Nor-nori (nor 3.)
 - Baiezko, ezezko eta galderazko perpausak
 - Perpaus elkartua:
 - Juntadura:
 - Emendiozkoa: eta
 - Hautakaria: edo
 - Aurkaritzakoa: baina
 - Menpekkoa:
 - Konpletiboa: -(e)la
 - Xedezkoa: -(e)lako
 - Elementu diskurtsiboak:
 - Erantzun laburrak:
 - Zalantza adierazteko zerbaiti buruz: “Ez dakit ba”, “Baliteke”,
“Ez nago seguru”...
 - Iritzia azaltzeko: “Oso ona/ondo”, “Benetan ederra”, “Ez hain ona”...
 - Betelana egiteko formulak: “Bueno”, “Ah”, “Zera”, “Nola esan?”, “Ba...”,
“Zera... ba”...

Prozedura

Hirunaka, bakoitzak tokatu zaizkion hizkuntza gutxituak aurkeztuko ditu. Ikasleak nahikoa du hizkuntzen izenak ezagutu eta datu batzuk eman eta hartzearekin, hizkuntza horien azaleko azalpena egingo du.

7.

Jarduera

“Euskara zaila dela?”



Irakurmena



Mintzamena

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** Mintzamena.
- **Testua:** Deskribapena.
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: Irakurritakoa labur-labur kontatzea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: Berdinen artekoa.
 - Komunikazio-kanala: Aurrez aurre (talde txikiaren aurrean).
 - Komunikazio-egoera: Ulertu dutenaren berri ematea.
 - Gaia: Ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: Doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistikoak:** (Ikus IV. JARDUERA)

Prozedura

Komikia bakarka irakurri, ulertu eta beheko galderei erantzungo diete. Bukatutakoan, emandako erantzunak talde txikian azaldu eta bakoitzak jarritakoa konparatuz, eztabaidatuko dute.

8.

Jarduera



Entzumena

“Euskal Herritik”

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** Entzumena.
- **Testua:** Telebistako erreportaia.
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: Galderei erantzutea.
 - Komunikazio-kanala: Bitartekoak medio (telebista).
 - Gaia: Ondoren eskatuko dena aurreikusteko modukoa.
 - Hizkera: Doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
 - Eginkizunak: Egindako galderari erantzun.
- **Adierazpide linguistikoak:**
 - Alderdi fonologikoa:
 - /Z/ /S/ /X/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
 - il>[ll]
 - in>[ñ]
 - Asimilazioak: ez naiz >[enaiz]
ez dira >[eztira]
ez ba >[ezpa]
 - Doinuera eta intonazioa
 - Alderdi morfosintaktikoa:
 - Izen arruntak: Eremu semantikoari dagozkionak
 - Adjetibo kualifikatiboak
 - Aditza: Orain eta lehenaldiko gertaerak
Aspektua: burutua, ez burutu-puntukaria, etorkizuna.
 - Baiezko, ezezko eta galderazko perpausak
 - Perpaus elkartua:
 - Emendiozkoa: eta
 - Hautakaria: edo
 - Aurkaritzakoa: baina
 - Menpeko esaldia:
 - Konpletiboa: -(e)la
 - Kausala: -(e)lako
 - Xedea: -t(z)eko
 - Erlatiboa -(e)n
 - Elementu diskurtsiboak:
 - Ez-hitzezko kodea: irudiak, keinuak, etenak, isiluneak...
 - Interakzioan erabiltzen diren esamoldeak:
 - elkarrizketari hasiera emateko: agurra, gaiaren sarrera.
 - argibideak eskatzeko: nola, esan berriro.
 - elkarrizketari amaiera emateko.

Prozedura

Grabazioa 2-3 aldiz entzun eta gero, galderei erantzungo diete. Bukatu ondoren, talde txikian jarrita, informazio bera jaso duten konprobatuko dute. Denek egindakoan, irakasleak erantzunak ezagutaraziko ditu.

GALDERAK

1. Erdi Aroko gaietan jakituna den Roger Collins Britaniarrak dio, euskal hizkuntzaren berezitasuna hain handia izanik, orain arte ezin izan dela sailkatu. Zer gehiago dio Collinsek?

Antzinatik Europan bizirik irauten duen hizkuntza ez indoeuropar bakarra dela.

2. Jan Michel Beraxagarrek, Zuberotar poetak, ze izen eman dio euskarari?

Pirineoetako jainkosa.

3. Noiz izan dezake jatorria euskarak?

Neolitikoan.

4. Noiz dio Caro Barojak, euskara galdu zutela Tafallatik Iruñera arteko herri guztiek?

1778tik 1868ra bitarte.

5. Zein izan da mendeetan zehar hizkuntza transmititzeko bidea?

Familia.

6. Zein da desagertu den euskalkia?

Erronkaria.

9.

Jarduera

“El aita es baldarro con la mandarra”



Irakurmena



Mintzamena

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** Irakurmena.
- **Testua:** Deskribapena.
- **Kontestua:**
 - Irakurketaren xedea: Informazioa jasotzea.
 - Komunikazio-kanala: Aldizkaria.
 - Komunikazio-era: Irakurgai erreala.
 - Gaia: Ikaslearen mundu ezagutzatik hurbilekoa.
 - Eginkizunak: Jatorria euskaran duten hitzak ezagutzea.
- **Adierazpide linguistikoa: DESKRIBAPENA:**
 - Adjetiboak: Kualifikatiboak
Atzizki adjetibatzaileak: -garri, -tar, -dun, -ti, -tsu
 - Konparaketa: graduazioa
 - Aditza: Denbora: orain eta lehenaldia
Aspektua: ez-burutu puntukaria, ez-burutua, burutua
 - Dimentsio-adierazleak: aurre, atze, azpi, gain, barru, ondoan, goian, behean, ezkerrean, eskuinean...
 - Objektuen xedea eta izaria adierazteko: Xedea: -t(z)eko
Erlatiboa: -e(n)
 - Denborazkoak: -(e)nean, eta gero, ondoren, aurretik...

Prozedura

Ikasleak, bere fitxan agertzen dena irakurri eta euskarazko hitzak zerrendatuko ditu. Bukatu eta gero, hiruko taldean, elkarren zerrendak konparatuko dituzte.

Ongi legoke talde txikietan atera dena talde osora pasatzea.

Polita litzateke, ikasleak bere etxean galdetu eta gero, euskaran jatorria duten gaztelerazko hitzak bildu eta hurrengo egunean gelan azaldu eta komentatzea.

“Ez du ezertarako balio”

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** Idazmena.
- **Testua:** Eskutitz informala.
- **Kontestua:**
 - Idazketaren xedea: Asmatutako tresnaren deskribapena egitea.
 - Igorle-hartzaile harremana: Ikasle-aldizkaria.
 - Komunikazio-kanala: Eskutitza.
 - Erabilera-esparrua: Aisialdikoa.
 - Gaia: Ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
- **Adierazpide linguistikoa: DESKRIBAPENA:**
 - Adjetiboak: Kualifikatiboak
Atzizki adjetibatzaileak: -garri, -tar, -dun, -ti, -tsu
 - Konparaketa: graduazioa
 - Aditza: Denbora: orainaldia
Aspektua: ez-burutu puntukaria, ez-burutua, burutua
 - Dimensio-adierazleak: aurre, atze, azpi, gain, barru, ondoan, goian, behean, ezkerrean, eskuinean...
 - Objektuen xedea eta izaria adierazteko: Xedea: -t(z)eko
Erlatiboa: -e(n)
 - Denborazkoak: -(e)nean, eta gero, ondoren, aurretik...

Prozedura

Ikasleek “ia ezertarako balio ez duten tresnak” lehiaketan parte hartuko dute. Talde txikian, hiruak, ia-ezertarako balio ez duen tresna asmatuko dute, *txindogua* deitu diotena. Tresna honen deskribapena egin ondoren, talde txiki bakoitzak bere tresna talde osoan aurkeztuko du.

Azalpen guztia egin ondoren, denon artean bat aukeratu eta hurrengo helbidera bidal dezakete:

Helbidea:
Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskolako
Euskara Departamentua
Taxoareko Errepidea, z-g
31006 Iruñea

Arian-arian, edozer zulatzen da

**ZER
IKASI
DUT?**

Helburua

Ikasgai honetan ikasi duena burura ekarri eta honetaz konturatzea.

Prozedura

Ikaslearen orrian duten fitxa bakarka bete eta gero, hiru fitxa jarri eta hiru fitzak konparatuko dituzte (horrela galduago dabilenari falta zaiona emango zaio).

5

Pertsona: arropa eta oinetakoak



Ongi ematen dit?

1.

Jarduera



Mintzamena

Soinekoak, galtzak...

Edukiak

- **Trebetasuna:** Mintzamena.
- **Testua:** Elkarrizketa.
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: Iritzia azaltzea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: Berdinen artekoa.
 - Komunikazio-era: Elkarrekintzako galde-erantzun laburrak.
 - Komunikazio-kanala: Aurrez aurre (talde txikiaren aurrean).
 - Komunikazio-egoera: Benetakoa.
 - Gaia: Ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: Doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistikoak:**
 - Alderdi fonologikoa:
 - /Z/ /S/ /X/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
 - il>[ll]
 - in>[ñ]
 - Asimilazioak: ez naiz >[enaiz]
ez dira >[eztira]
hil zen >[hiltzen]
 - Alderdi morfosintaktikoa:
 - Adjetibo kualifikatiboak
 - Aditza: Indikatibo oraina eta lehenaldia
Nor
Nor-nork (nor 3.)
Nor-nori-nork
 - Baiezko eta ezezko perpausak
 - Perpaus elkartua:
Emendiozkoa: eta
Hautakaria: edo
Aurkaritzakoa: baina

Prozedura

Atariko jarduera honetan mintzari ekingo diote jantziaren gaian sartzeko. Honela hartu beharko da jarduera hau: berotze ariketa gisa. Talde txikietan jarrita, minutu gutxi batzuk emango dituzte hizketan. Ariketa agortua dagoenean, hurrengora pasatuko gara.

2.

Jarduera



Entzumena

Zertan laguntzen ahal dizut?

Edukiak

- **Trebetasuna:** Entzumena.
- **Testua:** Bi pertsonen arteko elkarrizketak.
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: Informazio orokorra (denda klaseak) eta elkarrizketa bakoitzaren helburua jasotzea.
 - Komunikazio-kanala: Bitartekoak medio (kasetak).
 - Gaia: Entzuleentzat gai ezaguna.
 - Hizkera: Doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
 - Eginkizunak: Elkarrizketa horien helburua jasotzea; bezeroak zertara joan diren denda horietara jasotzea, alegia.
- **Adierazpide linguistikoak:**
 - Alderdi fonologikoa:
 - /Z/ /S/ /X/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
 - il>[ll]
 - in>[ñ]
 - Asimilazioak: ez naiz >[enaiz]
ez dira >[eztira]
hil zen >[hiltzen]
 - Alderdi morfosintaktikoa:
 - Izen arruntak: Eremu semantikoari dagozkionak
 - Adjetibo kualifikatiboak
 - Aditza: Indikatibo oraina eta lehenaldia
 - Nor
 - Nor-nori
 - Nor-nork (nor 3.)
 - Nor-nori-nork
 - Ahal / Ezin
 - Hipotetikoa (Kortesia-zko balioarekin ere bai)
 - Zerezkoa
 - Mugatzailea zenbakiekin
 - Mugagabea
 - Baiezko eta ezezko perpausak
 - Perpaus elkartua:
 - Emendiozkoa: eta
 - Hautakaria: edo
 - Aurkaritzakoa: baina, dena den, hala ere
 - Menpekoak:
 - Konpletiboak: -(e)la.
 - Zehar galderak: -(e)n
 - Erlatiboak: -(e)n

Prozedura

- A. Jarduera honetan elkarrizketak behin entzungo dituzte. Gero elkarrizketa bakoitza zer dendatan gertatzen den esan beharko dute.
- B. Zati honetan elkarrizketaren helburua zein den jaso beharko dute. Zati hau egiteko bi aldiz entzungo dute elkarrizketa bakoitza. Kontuan hartu erantzun zuzena bakarria dela.

Hona hemen elkarrizketen transkripzioa eta soluzioak:

1 . elkarrizketa

Bezeroa: Arratsalde on!

Dendaria: Baita zuri ere. Zertan laguntzen ahal dizut?

Bezeroa: Lehengoan jertse bat ikusi nuen eskaparatean lepoan marra zuri bat zuena.

Dendaria: Lepo itxia zuena ala pikoduna?

Bezeroa: Pikoduna

Dendaria: Ba, nik uste denak saldu ditugula. Aurreko hilabetean neurri guztietakoak genituen. Dena den itxoin pixka bat, barruan begiratuko dut ea baten bat gelditzen zaigun.

(...)

Ba, ez, agortuak daude. Sentitzen dut. Hala ere baditugu beste jertse batzuk oso antzekoak direnak. Hori bai, garestixeagoak, artilezkoak direlako. Oso kalitate onekoak. Begira, hauek dira.

Bezeroa: Bai, politak dira, baina nik begiz jota nuena gehiago gustatzen zitzaidan. Aurrerantzean ez dituzu gehiago izango, ezta?

Dendaria: Ez dut uste. Badaezpada ere pasatu hurrengo astean.

Bezeroa: Bai, horixe egingo dut, edo telefonoz deituko dizuet.

Dendaria: Baita ere.

Bezeroa: Eskerrik asko, agur.

Dendaria: Zuri, agur, bai.

2. elkarrizketa

Bezeroa: Egun on!

Dendaria: Egun on!

Bezeroa: Kotoizko alkandora bat nahi nuke.

Dendaria: Lisoa, marraduna ala kuadroa?

Bezeroa: Lisoa, lisoa. Kuadroak lodiago egiten dute. Hala entzun dut behintzat.

Dendaria: Bai, hala da. Lisoa da zuretzat egokiena. Hauek dira ditugun hoberenak. Kotoi-kotoizkoak dira.

Bezeroa: Ez zaizkit gehiegi gustatzen... igual hau, baina lepoa ez al da gogor samarra? Beldur naiz ez ote didan urraturen bat egingo.

Dendaria: Ez dut uste. Marka onekoa da eta asko saltzen dutenetakoa gainera. Dena den erosi eta gero arazorik bazenu, aldatuko genizuke inongo problemarik gabe. Zein da zure taila?

Bezeroa: Berrogeita laua.

Dendaria: Ummm, uste dut 44a ez dugula. Egon pixka bat... Ez, ez dugu.

Bezeroa: Kaka zaharra! Gaur ez da nire eguna, dudarik gabe. Egun osoa daramat alkandora madarikatu bat erosteko. Lau dendatan izan naiz eta alferrik. Kokoteraino nago! Ez dut ulertzen. Alkandora arraroak, koloretsuak, estanpatuak, moda-modakoak balira, tira, baina alkandora liso arrunt bat da, besterik ez.

Dendaria: Barkatu, jauna, sentitzen dut, baina orain ezkontza garaian gaudenez, lisoak dira gehien saltzen direnak. Barkatu.

Bezeroa: Ezkontza garaia aurreikus daitekeen kontua da. Aitzakia horrek ez dit balio. Hemen profesionaltasun falta ikaragarria dago.

3. elkarrizketa

Bezeroa: Kaixo, Maribel!

Dendaria: Ene! Kaixo, aspaldiko! Zer zabilta?

Bezeroa: Beno, betiko martxan. Ez pentsa ahaztuta nengoenik, baina egun hauetan lan-peturik ibili naiz eta ez dut etortzerik izan.

Dendaria: Zer, aita?

Bezeroa: Ba, bai. Burua gero eta okerrago du. Ezin dut bakarrik utzi. Batzuetan ni neu ere ez nau ezagutzen. Ez da batere erraza kontu hau eramatea.

Dendaria: Ez, ez, ez da erraza. Auzokide batek arazo bera zuen bere amarekin. 80 urte zituen eta burua galdua zuen. Auzokideak ia-ia burutik eginda bukatu zuen. Pertsona batek bakarrik eramateko gehiegi da.

Bezeroa: Beno, utz ditzagun pena guztiak eta gatozen gai alaiagoetara. Ailegatu al da eskatu nizun gona hura?

Dendaria: Zein, artilezkoa? Tanto urdinak dituen eta belauen pareraino ailegaten dena?

Bezeroa: Horixe bera!

Dendaria: Bi aste dira ailegatu zenetik. 38a gorde dizut, esan zenidan bezala. Hemen duzu. Polita, ezta?

Bezeroa: Bai, oso. Dena den, egun hauetan bi kilo gehiago galdu ditut. Ez dakit ez ote dudan beste taila txikiago bat hartu beharko!

Dendaria: Probatu, probatu...
(...)

Bezeroa: Zer moduz? Igual estu samarra?...

Dendaria: Ez. Oso ongi ematen dizu. Gainera artilezko arropak eman egiten dute erabiliaren erabiliz.

Bezeroa: Beno, hartu egingo dut. Zenbat balio du?

Dendaria: 135^e. Baina badakizu %10eko deskontua egiten dizugula, beraz...
121,50^e.

Bezeroa: Ederki. Importa ez bazaizu, txartelarekin ordainduko dizut, ez baitut eskura pagatzeko dirurik.

Dendaria: Ez, ez, nahi duzun bezala...
(...)

Hemen duzu tiketa. Sinatu eta kitto. (...) Eskerrik asko, eta ea gauzak konpon-tzen diren. A, eta zaindu zeure burua, gero!

Bezeroa: Ez dakit, ba, ez dakit. Beno, Maribel, agur, beste bat arte.

Dendaria: Agur, bai, ondo izan.

4. elkarrizketa

Bezeroa: Denbora luzea daramat zain. Ez dago inor atenditzeko?

Dendaria: Bai, barkatu. Ni naiz hemengo dendaria. Zertan laguntzen ahal dizut?

Bezeroa: Zapata batzuk nahi nituzke, baina ez dut ideia jakinik ekarri. Modelo batzuk ikusi nahi nituzke.

Dendaria: Ongi da. Takoidunak ala lauak, takoirik gabeak?

Bezeroa: Takoidunak, jakina. Eta larruzkoak nahi ditut, baina benetako larruarekin egingakoak. Ez dut plastikorik nahi.

Dendaria: Zein zenbaki erabiltzen duzu?

Bezeroa: 37a, baina estu samarrak badira, 38a.

Dendaria: Eta kolorea?

Bezeroa: Beltza.

(...)

Dendaria: Modelo hauek guztiak ekarri ditut. Hauek takoi altu eta fina dute. Larruzkoak dira eta behatz aldea zabal samarra dute. Oso erosoak dira.

Bezeroa: Punta zorrotzagoa dutenak nahi ditut.

Dendaria: Hauexek dute punta zorrotza.

Bezeroa: Bai, baina takokia ez da hain altua. Takoi altua nahi dut.

Dendaria: Bestela, hauek.

Bezeroa: Hauek ez zaizkit gustatzen. Takoi altua dute, baina zabala. Nik takoi fina eta altua nahi dut.

Dendaria: Egon pixka bat. Banoa barrura. Laster aterako dizut beste zapata pare bat.

(...)

Hauek ailegatu berriak dira. Modernoak eta dotoreak aldi berean. Oso politak. Modelo honek ez du euskarririk orpo aldean.

Bezeroa: Euskarririk gabe! Jesus ene! Hamaika ikusteko jaio gara! Horixe behar nuen estropezu egin eta kale erdian zabal-zabalik erortzea, denen barregarri. Ez, ez, ez. Ezta pentsatu ere! Klasikoagoak nahi ditut.

Dendaria: Banoa almazenera berriro, ea oraingoan zure gustukorik aurkitzen dudan.

(...)

Hauek ditugu, punta zorrotza dutenak eta takoi fina eta altua. Larruzkoak. Bene-benetako larruarekin eginak.

Bezeroa: Kolorea agian, argi samarra edo. Jantziko ditut ea ongi ematen didaten. (...) Ez dakit, ba. Ez nago oso konbentziturik. Uste nuen erosoagoak izango zirela. Zenbat balio dute?

Dendaria: 130€

Bezeroa: Jesus ene! Zer garestiak diren! Etxean hobeto pentsatuko dut. Zapatak hemen utziko ditut. Agur, gazte.

Dendaria: Agur.

Soluzioak:

1. elkarrizketa	a) b) c) d)	X	Lehen erosi duen jantzia aldatzera. Enkargatuta zuen jantzia erostera. Eskaparatean ikusia zuen arropa erostera. Ordaindu duen dirua berreskuratzena.
2. elkarrizketa	a) b) c) d)	X	Pentsatua zuen jantzia erostera. Erosi duen jantzia aldatzera. Eskaparatean ikusia zuen jantzia erostera. Ordaindu duen dirua berreskuratzena.
3. elkarrizketa	a) b) c) d)	X	Bere aitaz hitz egitera. Dendariari bisita egitera, besterik gabe. Bi kilo galdu dituela kontatzera. Dendariak gorde dion jantzia erostera.
4. elkarrizketa	a) b) c) d)	X	Dendariak gorde zizkion zapatak erostera. Zapata batzuk begiratzera. Dendariari bisita egitera. Erosi zituen zapatak aldatzera.

N.
a.b.c.d

1.,2.,3.,4. elkarrizketak urratsez urrats

Helburua

Erregistroaz eta jarreraz ohartaraztea. Gero ikasleak honela erantzutera eraman dituzten estrategien inguruan hausnarketa txiki bat egingo dute.

Prozedura

Ariketa hau egiteko, ikasleak nahi duen adina aldiz entzun behar ditu elkarrizketak. Sakonago lan egiteko, komenigarri deritzogu elkarrizketen transkripzioak aurrean dituztela lan egiteari.

1. elkarrizketa

	Erregistroa		Jarrera	
	Formala	Informala	Atsegina	Zakarra
Dendaria	✓		✓	
Bezeroa	✓		✓	

2. elkarrizketa

	Erregistroa		Jarrera		
	Formala	Informala	Atsegina	Zakarra	Haserre
Dendaria	✓		✓		
Bezeroa	✓			✓	✓

3. elkarrizketa

	Erregistroa		Jarrera	
	Formala	Informala	Atsegina	Zakarra
Dendaria		✓	✓	
Bezeroa		✓	✓	

4. elkarrizketa

	Erregistroa		Jarrera	
	Formala	Informala	Atsegina	Zakarra
Dendaria	✓		✓	
Bezeroa	✓			✓

3.

Jarduera

Gogoan hartu



Lexikoa

Helburua



Arroparen inguruko lexikoa (sustantiboak, adjetiboak eta modismoren bat (begiz jota) aurkeztu eta bereganatzen joatea. Ariketa honetan agertzen diren hitz guztiak 2. jardueran (entzumenean) azaldutakoak dira.

Prozedura

Batetik hamabiraino zenbaturik agertzen diren esaldiak (entzumenean azaldu diren bezalaxe) arretaz irakurri eta marrazkiekin parekatzen saiatu behar dute. Marrazkiak duen zirkuluan zenbakia jarri behar dute.

Soluzioak


1. **Bezeroa** eta **dendaria** dira istorio honetako protagonistak.
2. **Lepo** pikoduna.
3. Ba, ez, jertseak **agortuak** daude.



4. Bai, politak dira, baina nik **begiz jota** nuena gehiago gustatzen zitzaidan.






5. **Kotoizko** alkandora bat nahi nuke.
6. **Lisoa**,
7. **Marraduna** ala
8. **Koadroduna?**







9. Alkandora koloretsuak,


10. Estantpatuak, moda-moda-koak balira, tira...



11. Zein, artilezkoa? Tanto / mota urdinak dituen eta belauen pareraino ailegaten dena?



12. Ederki, inporta ez bazaizu, txartelarekin ordainduko dizut, ez baitut eskura pagatzeko dirurik.



N

Laburbil dezagun

Helburua

Aurreko jardueretan azaldu diren oinarriko funtzioen laburpena eskaintzea, alde batetik errazago asimilatzeke eta bestetik datozen jarduerotan oinarritzat hartzeko.

4.

Jarduera

Goazen dendaz denda



Mintzamina

Edukiak

- **Trebetasuna:** Mintzamina.
- **Testua:** Elkarrizketa.
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: Arropadendan daudela, egoera bati aurre egitea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: Berdinen artekoa.
 - Komunikazio-era: Bezeroa/dendaria rol joku honetan, interakziozkoa.
 - Komunikazio-kanala: Aurrez aurre.
 - Komunikazio-egoera: Benetakoa.
 - Gaia: Ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: Doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistikoak:** Aurreko jardueretan agertu direnak.
- **Adierazpide pragmatikoak:** Aurreko jardueretan agertu direnak.

Prozedura

Ariketan honen helburua aurreko jardueretan ikasi dutena (agurrak, eskatzeko modua, erre-gistroa, jarrerak...) praktikan jartzea denez, egoera jakin bat emanda, denda bateko giroa erreproduzituko dugu. Ikastaldea hirunaka edo launakako taldeetan banatuko dugu. Haietatik batzuk bezeroak izango dira eta beste bat dendaria. Ikasleek berek erregistroa (formala/informala) eta jarrera (atsegina, haserre, zakarra...) aukera ditzakete, edo bestela zuek, irakasleok. Komenigarria izango litzateke, ezertan hasi aurretik, taldeei denbora pixka bat ematea ongi presta dezaten. Nahi badute, ikaskideen aurrean antzez dezakete.

5.

Jarduera



Entzumena

Duda-mudatan

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** Entzumena.
- **Testua:** Bi pertsonen arteko elkarrizketa. Deskribapena.
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: Informazioa jasotzea.
 - Komunikazio-era: Interakziozkoa: Ikaslearen ezagutza-mailara egokituz (abiadura, ahoskera, zaratarik ez...).
 - Komunikazio-kanala: Bitartekoak medio (kaseteta).
 - Gaia: Entzuleentzat gai ezaguna.
 - Hizkera: Doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
 - Eginkizunak: Eskaparate beteko irudi bat euskarria izanik, eskaparate hori betetzea.
- **Adierazpide linguistikoak:**
 - Alderdi fonologikoa: ikusi 2. jarduera
 - Alderdi morfosintaktikoa: 2. jardueran azaltzen dena gehi:
 - Posposizioak
 - Nondik, nora, noraino
 - Konparaziozkoak
 - Lokailuak:
 - Emendiozkoak: ere, gainera, bestalde
 - Hautazkoak: bestela
 - Aurkaritzakoak: ordea, berriz, hala ere, dena den

Prozedura

Ariketa honetan bi zati daude. Lehendabizikoan Ana eta Imanol zapatadenda bateko eskaparatean dauden oinetakoak deskribatzen joango dira. Aipatzen diren datu eta pistengatik, ikasleek eskaparatean oinetako bakoitza dagokion lekuan jarri beharko dute. Horretarako aski dute oinetakoek duten zenbakia kuadroan jartzea. Hemen etenalditxo bat egin beharko da kasetean.

Transkripzioa - Lehenengo entzungaia

Ana: A, Imanol, utzi pixka bat eskaparate hori ikusten.

Imanol: Zein, zapatadenda horretakoa?

Ana: Bai, aspaldidanik nabil oinetakoak erostekotan.


(...)

Begira eskaparate erdian dagoen oinetako hori, mokasina. Larruzkoa ematen du.

Imanol: Punta karratua duena, ezta? Polita da eta eroso ematen du. Gainera kolorea ere gustatzen zait, marroi argia edo beixa. Edozein arroparekin konbinatzeko modukoa da. Eta prezioa, zer? Garesti samarra?

Pertsona: arropa eta oinetakoak

- Ana: Bueno, 60€ ez da asko. Hori pezetatan 10.000 dira, ezta? Bestela hor dago beste bat, mokasin horren eskuinean, merkeagoa 32 eurotan. Kolorea eta itxura bestearen antzekoak dira. Diferentzia bakarra, honek lokarriak ditu.
- Imanol: Eta hor dauden oinetako marroi horiek?
- Ana: Zeintzuk, mokasinen ezkerrean daudenak?
- Imanol: Bai, kirol-zapatilen itxura dutenak. Erosoak izango dira, seguru.
- Ana: Estilo informalagoa dute; ez dira besteak bezain jantziak. Lokarriak dituzte eta orpotik ia puntaraino ailegatzen den alboko marra bat.
- Imanol: Kolorea ondo, ezta? Gainera marroi argia eta iluna dituzu, aukeran. Agian garestiegiak, ez? Ia 100€ balio dute. Ikusi ditugunetatik garestienak.
- Ana: Itxoin, begira botin horri, mokasinen eta kirol-zapatilen artean dagoenari.
- Imanol: Orkataraino ailegatzen denaz ari zara?
- Ana: Bai, takoi altu eta zabala du. Larruzkoa ematen du eta kremaile raduna da.
- Imanol: Eta kolorea? Beltza da. Ez zenuen marroia erosi nahi?
- Ana: Bueno, kolorea ez da inportanteena. Bestetik prezioa ez da oso garestia, 42€.
- Imanol: Begira hor ezkerrean, lehen ikusi dugun oinetako marroiaren ondoan, ezkerrean, punta karratua eta lokarriak dituen horren ezkerrean.
- Ana: A, bai. Hori ere botina da. Punta karratua du, zabal samarra. Takoirik ez du. Gustatzen ez zaidana lotzeko sistema da. Ez du ez kremailearik ezta lokarriarik ere.
- Imanol: Niri batere gustatzen ez zaidana mokasinen atzean dagoen bota altu beltz hori da. Punta zorrotza eta takoi zabala dituena.
- Ana: Ez, ez. Niri ere ez zait gustatzen. Ia 39€ balio du. Ez dago gaizki, baina ez da nire estiloa. Ai, ez dakit zer egingo dudan! Zenbat eta modelo gehiago ikusi, orduan eta gehiago kostatzen da aukeratzea.




Pertsona: arropa eta oinetakoak

Bigarren zatian Anak, oinetako batzuk arrazoi batzuegatik edo besteengatik baztertutakotan, zer erosi erabaki du. Galdera horri erantzun behar diote ikasleek.

Transkripzioa - Bigarren entzungaia

- Ana: Bota altu hori ez zait gustatzen; beraz, bat gutxiago. Botinak, biak politak dira. Kremaile radunak besteak bezain erosoak ematen du, baina garestiagoa da. Bestetik mokasina kirol-zapatilen itxurakoak baino jantziagoa da, hau da, ez da besteak bezain informala. Prezio aldetik, kirol-zapatilen itxurakoek mokasina baino gehiago balio dute, 98^e. Eta mokasina eta lokarriak dituen beste oinetakoaren artean, ez dakit zein nahiago dudan. Bata bestea bezain eroso da, bata bestea bezain jantzia, eta hori bai, prezio aldetik mokasina bestea baino askoz garestiagoa da. Ai, Imanol. Ez dakit zer egin.
- Imanol: Hara, Ana. Ni zu banintz, lokarriak dituen oinetako beix edo marroia erosiko nuke. Prezio ona du, ez baita garestia. Are gehiago esango dizut, ikusi ditugun guztietatik merkeena da. Gero, kolore polita du, eta edozein arroparekin jantzeko modukoa da.
- Ana: Bai, Imanol, arrazoi duzu. Akabo zalantzak! horixe erosiko dut.

Soluzioa:



6.

Jarduera



Irakurmena



Lexikoa

Jantzi, erantzi

Edukiak

- **Trebetasuna:** Irakurmena.
- **Testua:** Jantzien deskribapena.
- **Kontestua:**
 - Irakurketaren xedea: Informazio zehatza jasotzea.
 - Komunikazio-kanala: Hiztegiko definizioak.
 - Komunikazio-era: Irakurgai errealak.
 - Gaia: Ezaguna.
 - Eginkizunak: Definizioak eta marrazkiak ezkontzea.
- **Adierazpide linguistikoa:**
 - Alderdi morfosintaktikoa:
 - Arroparen inguruko lexikoa
 - Adjetibo kualifikatiboak
 - Aditza: Indikatibo oraina
 - Nor
 - Nor-nork (nor 3.)
 - Nor-nori-nork
 - Nondik, nora, noraino
 - Baiezko eta ezezko perpausak
 - Perpaus elkartua:
 - Emendiozkoa: eta
 - Hautakaria: edo
 - Aurkaritzakoa: baina
 - Menpekoak:
 - Konpletiboak: -(e)la.
 - Zehar galderak: -(e)n
 - Denborazkoak: -(e)nean
 - Helburuzkoa: Zertarako?

Prozedura

Ikasleek deskribapenak irakurri beharko dituzte. Helburua ondoko marrazki eta argazkiekin ezkontzea izango da, baina erantzunak gurutzegraman emango ditu. Gurutzegraman marrazkiek dituzten letrak daude.

Soluzioak:

1. Neguan edo hotz handia egiten duenean, gainerako arropen gainean jartzen den jantzi luze eta lodia. **(berokia)**

2. Emakumezkoek bularrei eusteko erabiltzen duten jantzia. **(bularretakoa)**
3. Gizonezkoen jantzia da. Gorputza, besoak eta gehienetan lepoa estaltzen du eta aurre aldean botoiak ditu. **(alkandora)**
4. Gorputza gerritik behera eta bi zangoak banaka estaltzen dituen jantzia. Motzak ere badaude. **(galtzak)**
5. Gizonezkoen barneko jantzia, galtzen azpitik erabiltzen dena. **(galtzontziloak)**
6. Batez ere emakumezkoek erabiltzen duten gerritik beherako jantzia, moda eta erabile-
raren arabera forma eta luzera aldakorra dituena. **(gona)**
7. Zangoaren behealdea eta oina estaltzen dituen jantzia. Binaka erabiltzen dira.
(galtzerdiak)
8. Gorputzean zuzenean larruazal gainean jartzen den jantzia. Normalean mahuka mo-
tzak ditu, leporik ez du eta aurreko aldean zein atzekoan marrazkiak, letrak... izan di-
tzake. Bero egiten duenean, gainean beste ezer jantzi gabe erabil daiteke. **(kamiseta)**
9. Puntuzko oihalez egindako jantzia, gorputza lepotik gerriraino estaltzen duena. Oro har
bi motakoak daude: lepo itxia eta pikoduna dutenak. **(jertsea)**
10. Euria egiten duenean eta gainerako arropen gainean jartzen den jantzi arina. Oihala
berezi samarra da, ura pasatzen uzten ez duelako. **(gabardina)**
11. Emakumezkoen jantzia da, oin eta hanka osoa izterren goialderaino estaltzen dituena.
(galtzerdiak)
12. Alkandoraren antzeko jantzia, lepoduna, bi edo hiru botoi dituena eta mahuka motzak
zein luzeak dituena. Bero egiten duenean, gainean beste ezer jantzi gabe erabil daite-
ke. **(poloa)**
13. Alkandora luzearen moduko jantzia, emakumeek lotarako erabiltzen dutena. **(kami-
soia)**
14. Jantziak gerrian lotzeko erabiltzen den apaingarria. **(gerrikoa)**
15. Oihalezko apaingarri luzea, alkandoraren lepoa inguratu eta aurrean korapilatuz janz-
ten dena. **(gorbata)**
16. Hotza edo euria egiten duenean, ohiko jantzien gainetik jartzen den jaka lodia, berezi-
ki ilea duena. **(txamarra)**
17. Emakumezkoen barneko jantzia, gerritik izterren goialderaino estaltzen duena. **(kule-
roak)**
18. Alkandoraren gainean jartzen den jantzia. Galtzekin trajea osatzen du, baina bakarrik
ere erabil daiteke. **(jaka)**
19. Orkatilaraino heltzen den zola gogorreko oinetakoa. Binaka erabiltzen dira. **(zapatak)**
20. Emakumezkoen jantzia, alkandoraren antzekoa. **(blusa)**
21. Lo egiteko erabiltzen den bi piezako jantzia. **(pijama)**
22. Igeritarako edo parrillan bezala, ahoz gora eta ahoz behera (ahuspez), eguzkia har-
tzeko erabiltzen den jantzia. **(bainujantzia)**
23. Etxean erabiltzeko nahiz kirola egiteko oinetakoa. **(zapatila)**
24. Berezi emakumeentzako jantzia. Pieza batekoa eta edozein luzera izan daitekeena.
(soinekoa)

Pertsona: arropa eta oinetakoak

				W											B				R				P			
C	J	E	R	T	S	E	A								A				B				P		E	
				X						L	G	A	L	T	Z	E	R	D	I	A	K					
				A											K				R				J		U	
	X	K	A	M	I	S	O	I	A						A				O				A		L	
				A											N				K				M		E	
	Ñ	G	O	R	B	A	T	A							D				I				A		R	
	N			R											O				A						O	
S	G	A	B	A	R	D	I	N	A						R										A	
	O															A	F	G	A	L	T	Z	A	K		
	N															O							K			
	A				M										B								J			
D			Z		B					S						A							A			
B		A	G	A	L	T	Z	O	N	T	Z	I	L	O	A	K										
U			E		U										N								A			
L			R		S					N					U										I	
A			R		A					E					J										K	
R			I							K					G	Z	A	P	A	T	I	L	A	K		
R			K	J	P	O	L	O	A						N									M		
E			O							A						T									I	
T			A													Z									S	
A			U	G	A	L	T	Z	E	R	D	I	A	K											E	
K																A										T
O																										A
A										H	Z	A	P	A	T	A	K									

7.

Jarduera

Domino partida bat?



Lexikoa

Helburua

Arroparen inguruko lexikoa erreparasatzea.

Prozedura

Hirunaka edo launakako taldetxoak egin ondoren, fitxa guztiak banatu taldekideen artean. Batek (fitxak banatu dituenaren eskuinean dagoenak) jarriko du nahi duen fitxa mahai gainean, eta hurrengoak segituko du. Jokua bukatutakoan, errepika daiteke.

8.

Jarduera

Maletak prest dituzu?



Idazmena

Edukiak

- **Trebetasuna:** Idazmena.
- **Testua:** Jantzien deskribapenak.
- **Kontestua:**
 - Idazketaren xedea: Informazioa zabaltzea.
 - Igorle-hartzaile harremana: lkasle-ikaslle.
 - Komunikazio-kanala: Eskuz bat-batean idatziak.
 - Erabilera-esparrua: Akademikoa.
 - Gaia: Ezaguna, mundu ezagutzatik hurbilekoa.
- **Adierazpide linguistikoa:**
 - Izen arruntak: Eremu semantikoari dagozkionak
 - Adjetibo kualifikatiboak
 - Aditza: Indikatibo oraina
 - Nor
 - Nor-nori
 - Nor-nork (nor 3.)
 - Nor-nori-nork
 - Hipotetikoa
 - Baiezko eta ezezko perpausak
 - Perpaus elkartua:
 - Emendiozkoa: eta
 - Hautakaria: edo
 - Aurkaritzakoa: baina, dena den, hala ere
 - Menpekoak:
 - Erlatibozkoak: -(e)n



Mintzamena

Edukiak

- **Trebetasuna:** Mintzamena.
- **Testua:** Jantzien deskribapena.
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: Jantzien deskribapena ematea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: Berdinen artekoa.
 - Komunikazio-era: Txanda laburreko jardunak.
 - Komunikazio-kanala: Aurrez aurre (talde handiaren aurrean).
 - Komunikazio-egoera: Benetakoa.
 - Gaia: Ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: Doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistikoak:**
 - Alderdi fonologikoa: ikus 1. jarduera
 - Alderdi morfosintaktikoa: Jarduera honetako idazmenean agertzen dena.

Prozedura

Ikastaldea binaka edo hirunakako taldetxoetan banatu ondoren, bakoitzari ondoko orrian agertzen diren helmugetako bana emango dio irakasleak. Haiiek, egokitu zaien klimaren arabera, maletan sartuko luketen arroparen deskribapena egingo dute, adibidean agertzen den bezala. Dena prest dutenean, taldekideei horren berri emango diete.

9.

Jarduera

Eragin buruari



Idazmena



Mintzamena

Edukiak

- **Trebetasuna:** Irakurmena.
- **Testua:** Asmakizuna.
- **Irakurketa-mota:** Informazio orokorra eta zehatza.
- **Kontestua:**
 - Irakurketaren xedea: Arazo bati soluzioa ematea.
 - Komunikazio-kanala: Egunkari bateko testu laburra.
 - Komunikazio-era: Irakurgai erreala.
 - Gaia: Ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
- **Adierazpide linguistikoa:**
 - Alderdi morfosintaktikoa:
 - Mugagabea
 - Aditza: Indikatibo oraina eta lehenaldia
 - Nor
 - Nor-nork (nor 3.)
 - Nor-nori-nork

Prozedura

Ikasleak binaka edo hironaka jarrita, talde bakoitzak arretaz irakurriko du arazoa. Zalantzak badituzte, aurrena saiatu gelakide guztien artean argitzen. Ezin bada, irakasleak argituko ditu. Pentsatzeko nahikoa denbora eman eta gero, talde bakoitzak emango du bere soluzioa, eta denon artean ikusi soluzio hori sinesgarri eta bideragarria den ala ez. Inork asmatuko ez balu, irakasleak emango luke soluzioa. Edozein kasutan ikasleek ulertu behar dute euskaraz aritzea soluzioa aurkitzea baino inportanteagoa dela.

Zapata berriak

Galdera: Nola da hori posible bi ama eta bi alaba zirela esan badugu?

Soluzioa:

Bi ama eta bi alaba izan arren, hiru erosle bakarrik zirelako da hori posible. Bi ama eta bi alaba ez dira, ezinbestean, lau pertsona. Istorioaren protagonistak, esaterako, hiru dira: amona Kontxi, horren alaba Itziar eta Itziarren alaba Maitane. Beraz, bi ama daude: Kontxi (Itziarren ama) eta Itziar bera (Maitaneren ama), eta bi alaba (Itziar, Kontxiren alaba) eta Maitane (Itziarren alaba). Trukua? Oso erraza: Itziar, pertsona bakar bat izan arren, ama eta alaba da aldi berean.

10.

Jarduera



Mintzamena

Erosketak ez dira beti ongi ateratzen

Edukiak

- **Trebetasuna:** Mintzamena.
- **Testua:** Interakziozko elkarrizketa (rol jokua).
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: Rolak aurrera eramatea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: Berdinen artekoa.
 - Komunikazio-era: Elkarrekintzako galde-erantzun laburrak.
 - Komunikazio-kanala: Aurrez aurre.
 - Komunikazio-egoera: Benetakoa.
 - Gaia: Ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: Doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistikoak:**
 - Alderdi fonologikoa: ikus 1. jarduera.
 - Alderdi morfosintaktikoa: ikus 2. jarduera.

Prozedura

Rol joku baten aurrean gaude. Irakasleak esango du ikasle bakoitzak zer paper bete behar duen (A ikaslea edo B ikaslea). Egoera hau aurrera eramateko aurreko jardueretan ikasi duena praktikan jarri beharko du ikasleak. Irakaslearen esku geratzen da bikote guztiak aldi berean aritzea edo banan banan, gainerako gelakideak begira daudela. Ariketa bukatu ondoren, ongi dago autoebaluaziorako aukera ematea: esan dezatela ariketa zer moduz joan den, zer oztopo aurkitu duten... Ebaluazio honek irakasleari pista handia eman diezaiolke ikusi dutena asimilatu duten ala ez antzemateko.

“A ikaslea” fitxa dutenek ezin dute “B ikaslea”-rena ikusi eta alderantziz. Beraz onena izango da aparte hartu (“A ikaslea” dutenak alde batera eta “B ikaslea” dutenak bestera) eta orduan egoeraren berri ematea.

• Egoerak hauexek dira:

– A ikaslea: Bezeroa

Jertse bat erosi duzu, baina etxera ailegatzerakoan, konturatu zara jertse horrek zulo txiki bat duela. Azaldu dendariari zer gertatzen den eta beste bat emateko eskatu. Tiketa eraman behar duzu.

– B ikaslea: Dendaria

Atzo jertse bat erosi zuen bezeroa ailegatuko zaizu dendara. Jertsea aldatu nahi du, baina ezin diozu aldatu, neurri berekorik ez duzulako. Hurrengo astean gehiago ekarriko dizkizute, baina orain dituzunak garestiagoak dira. Tiketa erakusteko eskatu.

11.

Jarduera



Irakurmena

Nahi duenak eskuragarri ditu erreklamazio orriak

Edukiak

- **Trebetasuna:** Irakurmena
- **Testua:** Erreklamazio orria.
- **Irakurketa-mota:** Informazio orokorra eta zehatza.
- **Kontestua:**
 - Irakurketaren xedea: Erreklamazio orria nola betetzen den ikastea.
 - Komunikazio-kanala: Benetako inprimakia.
 - Komunikazio-era: Irakurgai erreala.
 - Gaia: Ezezagun samarra.
- **Adierazpide linguistikoa:**
 - Alderdi morfosintaktikoa:
 - Datu pertsonalen inguruko lexikoa.
 - Aditza: Indikatibo oraina eta lehenaldia
 - Nor
 - Nor-nori
 - Nor-nork (nor 3.)
 - Nor-nori-nork

Prozedura

Honen helburua, bezeroa eta dendaria ados jartzen ez direnean, Administrazioaren aurrean eskubideak defendatzeko duten bidea erakustea da. Ariketa honetan benetako inprimakia agertzen da eta berau bete ahal izateko inprimakiaren beste aldean dauden ohar eta jarraibideak. Aipaturiko jarraibideak zertxobait moldatu ditugu ulermenaren mesedetan. Irakasleak azalduko du erreklamazio orri eredua.

12.

Jarduera



Idazmena

Ez nago konforme, erreklamazioa aurkeztu nahi dut

Edukiak

- **Trebetasuna:** Idazmena.
- **Testua:** Inprimakia: erreklamazio orria.
- **Kontestua:**
 - Idazketaren xedea: Erreklamazio orria betetzea.
 - Igorle-hartzaile harremana: Administrazioa-ikaslea.
 - Komunikazio-kanala: Eskuz bat-batean idatzia.

- Erabilera-esparrua: Ofiziala.
- Gaia: Ezezaguna.

- **Adierazpide linguistikoa:** Aurreko jardueran agertutakoa.

Prozedura

Erreklamazio orria betetzeko lau egoera daude. Irakasleak gela binakako taldeetan banatu ondoren, bakoitzari egoera bana emango dio erreklamazio orria bete dezan. Eredua aurreko jardueran agertzen da, kopia besterik ez dute egin behar, jakina, tokatu zaien egoerara egokiturik.

Nahi bada, eta mintzamina praktikatzeko, irakasleak erreklamazio orriak jaso eta banan banan irakurrita, ikasle guztiak ebatzen saia daitezke.

13.

Jarduera

Modaren atzaparretan



Irakurmena

Edukiak

- **Trebetasuna:** Irakurmena.
- **Testua:** Egunkari bateko artikulua.
- **Irakurketa-mota:** Informazio zehatza.
- **Kontestua:**
 - Irakurketaren xedea: Informazioa jasotzea.
 - Komunikazio-kanala: Egunkaria.
 - Komunikazio-era: Irakurgai erreala.
 - Gaia: Ezagun samarra.

Prozedura

Artikulu hau irakurri ondoren, egia / gezurra motako galderei erantzungo diete. Komenigarria da irakurtzeko garaian norberak berea irakurtzea, artikulua kontzentrazio handia eskatzen baitu. Erantzunak emateko binaka elkar daitezke.

Soluzioak:

1. Hiri-moda kontzeptu hau:		
	EGIA	GEZURRA
aspaldikoa da.		X
sortu berria da.	X	
aspaldikoa da, baina orain modan jarri da.		X
moda pasareletan inspiratzen da.		X
kalean inspiratzen da.	X	
2. Zein da hiri-moda kontzeptu honen ondorioa?		
	EGIA	GEZURRA
Pertsona bakoitzak janzteko estilo propioa duela.		X
Pertsona guztiok antzeko estiloa dugula.	X	
Janzteko estiloa aukeratzean, telebistan ateratzen dena oinarritzat hartzen dela.	X	
3. Berdintasuna, homogeneousitasun eta uniformizaziorantz goaz:		
	EGIA	GEZURRA
baina oraindik ere ikusten dira arropa-estilo diferenteak hirietan.	X	
beraz, ez dago ezberdintasunik eta iparraldeko hirietan janzten diren arropak janzten dira Levanten.		X
4. Hiri-modak dakarren beste fenomeno bat hiri-tribuena da. Hiri-tribuetako kideek:		
	EGIA	GEZURRA
janzteko era ezberdina bilatzen dute.	X	
janzteko itxura tradizionala gogoko dute.		X
haien moda berezi horretara jotzen dute beste tribuengandik desberdintzeko.	X	
moda berezi horretara jotzen dute haien gurasoek hori nahi dutelako.		X

N

Diskurtso nozioak

Helburua

Ikasleak ohartaraztea hitz egiteak ere bere teknika eta baliabideak dituela. Baliabide horiek ematera dator, beraz, jarduera hau.

Prozedura

Irakasleak azaldu behar du, hurrengo jardueran praktikan jarri ahal izateko.

14.

Jarduera

Nolako pertsona halako janzkera



Mintzamena

Edukiak

- **Trebetasuna:** Mintzamena.
- **Testua:** Interakziozko elkarrizketa.
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: Iritzia ematea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: Berdinen artekoa.
 - Komunikazio-era: Elkarreragina ez da erantzun soiletara mugatuko.
 - Komunikazio-kanala: Aurrez aurre.
 - Komunikazio-egoera: Ahalik eta benetakoa.
 - Gaia: Ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: Doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistikoak:**
 - Alderdi fonologikoa: ikus 1. jarduera.
 - Alderdi morfosintaktikoa: eskuratu dituzten baliabide guztiak.

Prozedura

Honen helburua aurreko jardueran azaldu diren diskurtso nozioei erreparatu eta erabiltzen saiatzea da. Horretarako prestatua dago aurreko artikuluan oinarrituriko gidoia. Aurrena talde txikietan –launaka edo– jarriko dira erantzunak prestatu eta mingaina askatzeko. Gero denon artean eztabaidatuko dute. Irakasleari dagokio diskurtso nozioak erabiltzen dituzten begiratzea.

15.

Jarduera



Irakurmena



Mintzarena

Ospetsuen baremoa

Edukiak

- **Trebetasuna:** Irakurmena.
- **Testua:** Egunkari bateko testuak.
- **Irakurketa-mota:** Informazio orokorra jasotzea.
- **Kontestua:**
 - Irakurketaren xedea: Informazio orokorra jasotzea ikasleek eredu gisa erabiltzeko.
 - Komunikazio-kanala: Egunkaria.
 - Komunikazio-era: Irakurgai erreala.
 - Gaia: Ezagun samarra.
- **Adierazpide linguistikoak:**
 - Alderdi fonologikoa: ikus 1. jarduera.
 - Alderdi morfosintaktikoa:
 - Deskribapenak eskaintzen duena:
 - Arroparen inguruko lexikoa
 - Erlatibozkoak
 - Balorazio positiboa eta negatiboa

Prozedura

Honen helburua testu eredu batzuk eskaintzea da. Testuotan zine-aktore batzuen janzkera hartzen da oinarritzat balorazioa emateko (e)a ongi janzten diren ala ez). Alde batetik arroparen deskribapen xumea egiten da, eta bestetik balorazioa. Adibide horretan erreparatu-ko dute ikasleek egin behar duten lana burutzeko: irakasleen janzkera aztertzen duen zerrenda bat prestatzea.

Ikasleak binaka edo hirunaka arituko dira beren artean mintzatzen zerrenda osatu arte. Gero, besteei horren berri emango diete.

16.

Jarduera

Bitxikeriak



Irakurmena



Idazmena

Edukiak


- **Trebetasuna:** Irakurmena.
- **Testua:** Egunkari bateko artikuluak.
- **Irakurketa-mota:** Informazio orokorra jasotzea.
- **Kontestua:**
 - Irakurketaren xedea: Informazio orokorra jasotzea.
 - Komunikazio-kanala: Egunkaria.
 - Komunikazio-era: Irakurgai errealak.
 - Gaia: Ezagun samarrak.
- **Adierazpide linguistikoak:**
 - Alderdi fonologikoa: ikus 1. jarduera.
 - Alderdi morfosintaktikoa: deskribapenak eskaintzen duena:
 - Arroparen inguruko lexikoa
 - Erlatibozkoak

Prozedura


Artikulu hau irakurri ondoren, esmokina, txakea eta frakaren definizioak argazkiekin ezkondu behar dituzte, jantzi horien dibujoak lagungarri dituztelarik. Komenigarria da irakurtzeko garaian norberak berea irakurtzea, artikuluak kontzentrazio handia eskatzen baitu. Erantzunak emateko binaka elkar daitezke.

Bukatzeko, debatea egin daiteke: artikuluaren ildotik abiatuz, ezkontzetarako zein diren neskek eta mutilek erabiltzen dituzten arropak galdetzen ahal da.


Soluzioa:




TXAKEA



ESMOKINA




FRAKA



TXAKEA



ESMOKINA



FRAKA

17.

Jarduera

Marrubi, banilla usaina duten oinetakoak



Irakurmena



Idazmena

Edukiak

Ikus 16. jarduera.

Prozedura

Artikuluak irakurri eta gero, informazio orokorra jaso behar dute. Ondoren, irakurri duten berria laburtuko dute.

Norberak berea irakurtzea komeni da. Gero binaka elkar daitezke laburpenari ekiteko.

18.

Jarduera

Moda-diseinatzailea banintz...



Entzumena

Edukiak

- **Trebetasuna:** Idazmena.
- **Testua:** Arroparen deskribapena.
- **Kontestua:**
 - Idazketaren xedea: Jantzi bat diseinatzea.
 - Igorle-hartzaile harremana: Ikasle-ikasle.
 - Komunikazio-kanala: Eskuz bat-batean idatzia.
 - Erabilera-esparrua: Eguneroko harremanetakoa.
 - Gaia: Ezaguna.
- **Adierazpide linguistikoa:**
 - Alderdi fonologikoa: Ikus 1. jarduera.
 - Alderdi morfosintaktikoa: Deskribapenak eskaintzen duena:
 - Arroparen inguruko lexikoa.
 - Hipotetikoa.
 - Erlatibozkoak.

Prozedura

Ikastaldea binaka edo hirunakako taldeetan banatu ondoren, irakasleak talde bakoitzari egoera bat emango dio, horren arabera jantzia diseinatzeko. Talde guztiek bukatutakoan, lehenengoa hasiko da egin duen diseinua irakurtzen, gainerako guztiek marrazkia egiten duten bitartean. Azken fasean konprobatuko dute ea diseinua bat datorren marrazkiarekin. Ongi baderitzozue, marrazkiak zintzilik jar daitezke gelako hormetan.

19.

Jarduera

Modaren atzaparretan



Irakurmena


Edukiak

- **Trebetasuna:** Irakurmena.
- **Testua:** Egunkari bateko artikulua.
- **Irakurketa-mota:** Informazio zehatza.
- **Kontestua:**
 - Irakurketaren xedea: Informazioa jasotzea.
 - Komunikazio-kanala: Egunkaria.
 - Komunikazio-era: Irakurgai errealia.
 - Gaia: Ezagun samarra.

Prozedura

Artikulu hau irakurri ondoren, oinetako-modelo batzuen artean osasun arazorik ekar dezaketzen zapata motak aukeratu behar dituzte. Komenigarria da irakurtzeko garaian norberak berea irakurtzea, artikulua kontzentrazio handia eskatzen baitu. Erantzunak emateko binaka elkar daitezke.

Soluzioa:



20.

Jarduera



Irakurmena

Tailarik txikiena nahi dut!

Edukiak

- **Trebetasuna:** Irakurmena.
- **Testua:** Egunkari bateko artikulua.
- **Irakurketa-mota:** Informazio zehatza.
- **Kontestua:**
 - Irakurketaren xedea: Informazioa jasotzea.
 - Komunikazio-kanala: Egunkaria.
 - Komunikazio-era: Irakurgai errealak.
 - Gaia: Ezagun samarra.
- **Adierazpide linguistikoa:**
 - Alderdi fonologikoa: ikus 1. jarduera.
 - Alderdi morfosintaktikoa:
 - Deklinabidea (mugagabeak)
 - Ehunekoak (portzentajeak)
 - Konparatibozkoak

Prozedura

Ariketa honen helburua mugagabeak eta ehunekoak lantzea da. Artikulu hau irakurri ondoren, datu horietan eskatutako zuzenbidea ikasleari. Aurreko irakurketetan bezala, hemen ere komenigarria da irakurtzeko garaian norberak berea irakurtzea. Erantzunak emateko bina-ka elkar daitezke.

21.

Jarduera



Mintzamina

Anorexiari buruz mintzo

Edukiak

- **Trebetasuna:** Mintzamina.
- **Testua:** Interakziozko elkarrizketa.
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: Iritzia ematea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: Berdinen artekoa.
 - Komunikazio-era: Elkarreragina ez da erantzun soiletara mugatuko.
 - Komunikazio-kanala: Aurrez aurre.
 - Komunikazio-egoera: Ahalik eta benetako.
 - Gaia: Ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: Doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistikoak:**
 - Alderdi fonologikoa: Ikus 1. jarduera.
 - Alderdi morfosintaktikoa: Eskuratu dituzten baliabide guztiak.

Prozedura

Honen helburua diskurtso nozioak lantzen segitzea da. Ikasleek hemen ere prestatua dute mintzatzeko lagungarri izan dakiekeen gidoia. Aurrena talde txikietan –launaka edo– jarriko dira zer esan behar duten prestatu eta mingaina askatzeko. Gero denon artean eztabaidatuko dute. Irakasleari dagokio diskurtso nozioak erabiltzen dituzten begiratzea.

Arian, arian edozer zulatzen da

**ZER
IKASI
DUT?**

Helburua

Gaur egungo metodologiaren arabera, ardatz nagusia ikaslea da, bera baita ikas-prozesuaren partaide eta aktore nagusia. Ikaslea bere ikas-prozesuaz jabetzen den heinean, zergatik eta zertarako ikasten duen, nora iritsi nahi duen... jakitun den heinean, arrakastatsuagoa izango da bere ikas-prozesua. Ikaslearen autonomia bultzatzera, hain zuzen ere, dator azkeneko atal hau.

Prozedura

Ikastunitatea bukatu ondoren, ikasleek, binaka edo hirunaka jarrita, beteko dute azken fitxa. Gero, besteen aurrean bikote bakoitzak eman dezake ikasi duenaren berri; hortaz, irakasleak gogoetarako beta ematen duen ariketa hau tresnatzat har dezake ikasleak adierazpide linguistiko zein pragmatikoak bereganatu dituen ala ez ikusteko.